

# Lauaxetaren semea

Esteban Urkiagaren bizitza eta heriotzaz dokumentu berriak aurkitu ditut: fusilatu egin zuten eta gero zigortu

JON KORTAZAR



**J**oan da oroimen urtea. Pasa da Gabriel Arestiri egindako omenaldia. Igaro dira denboraren sinbolo diren enarak eta memoriaren gurpilak bere errotara daramatza ur berria. Oraindik arrazoiak ez baditut ulertzen, ez nintzen Arestirenean izan, eta Esteban Urkiagaren omenaldia tokatu zitzaidan niri. Oroimenaren itzalpean, horren bizitza eta heriotzaz dokumentu berriak aurkitu ditut. Hona hemen lehena.

## Fusilatua eta zigortua

Ezaguna da, eta prentsak horrela zabaldu du, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskera, Kultura eta Kirol Sailaren ardurapean erakusketak egin dela Esteban Urkiaga Lauaxetaren omenez. Erakusketak osatzen ari nintzela, eta ondoren baina, agertu ziren zenbait dokumentu historiko, bere garaian erabili ez genituenak. Bata

gaur lehen aldiz argitaratzen den hau da (EL CORREOko web orriari osorik dago ikusgai).

Jakina da Esteban Urkiaga Lauaxeta. Gasteizen fusilatu zutela 1937ko ekainaren 25ean Santa Isabel hilerriaren kanposantuaren hormetan, «En la parte correspondiente al Hipódromo» zehatzago izateko. Hori guztia bagenekien, bai. Ez genekiena da, ordea, bere jarrera politikoa, abertzaletasuna, bizitzarekin ordaindu ostean, frankistek isuna jarri eta dirua eskatu zutelara, berari ezin eta bere senideei.

Ez zen nahikoa izan fusilamendua. Erantzun Politikoen Auzitegiak isuna jarri zion 1941eko irailaren 4an. Ohikoa zen jarrera hori sistema frankistan. Errepublikarrak eta euskal abertzaleak gogor zigortu ondoren gorrotoari gorrotoa gehituz, minari mina, frankistek asmatu-riko erantzukizun politikoak di-

ruz ordaindu behar zituzten.

## Bilboko hirian 1941eko irailaren 4an


Bilboko hirian 1941eko irailaren 4an bildu zen Erantzukizun Politikoen Auzitegiak, Braulio Ordoñez buru zela, bokalak Francisco Arias eta Luis Otero, eta idazkaria Francisco Balcazar, erabaki zuen aho batez, aho batez, «que procede imponer e imponemos al caudal hereditario de Esteban Urkiaga Basaras como políticamente responsable de hechos graves, la sanción económica de pago de Mil Pesetas»

Eta aitortu behar dut zaila dela jakitea zenbat diru den gaur egun orduko 1000 peze- ta horiek. Orduan 1000 peze- tatan ordaintzen zen lan bat,

Iturria: Centro Documental de la Memoria Histórica. Salamanca: Fichero de la Sección Politico-Social | Fichero 66, Ficha U0012179.

gaur egun 9.255 eurotan ordainduko genuke eta errentaren arabera, 14.544 euro lirarteko.

Dokumentua irakurtzen duen edonork ikusiko du, lehenik, plegua inprimatua dagoela, beraz, alde aurretik zela erabakia jarrita. Soilik behar zen ataltxo



batzuk bete. Eta ondoren, txapuz txapuzaren gainean dagoela jarrita. Plegua 1940garren urterako pentsatua zegoen, horregatik eskuz jartzen da 1 bat urtearen dataren gainean. Orri baten ekainean hartu zuten erabakia, bestean irailean, eta hauxe da ontzat eman beharrekoa. Eta bide batez, ortografia ez da, noski, garrantzitsua.

## Ankerkeria: Lauaxetaren semea

Hutsa hutsaren gainean. Mila peze- ta horiek Lauaxetak utzi (omen) zuten dirutik kobratu nahi dituzte, horrela orrialde batean diote, ziur- renik ez dela kobratuko, utzike- riaz, «no se ha averiguado si a su fallecimiento dejó bienes de fortuna, aunque se supone que no. Como soltero que era no tenía obligaciones de familia». Baina hurrengo orriari, seme bat asmatzen diote Lauaxetari: «La expresada sentencia fue comunicada a su hijo».

Lehen aldiz ikusi dut aipatua Lauaxetaren semea. Hori ere oker dago. Ankerrari denak berdin dio. Ziurrenik aitaz ari da dokumentua, edo senide batez, zeren azken puntuan, senide horrek Lauaxeta ondasunik utzi gabe hil zela ziurtatu zuen.

Fusilatua izan ondoren isuna ordaindu behar. Ankerrak ez du ankerkeria erraz uzten.

# Piercing bat udaberrian

JON MARTIN-ETXEBESTE

Album ilustratu honek urte baten ibilbidea kontatzen du, neguan hasi eta, urtaroz urtaro, negura itzuli arte. Eguneroko bizipen txikietan jartzen du fokua, sagu-familia bateko kideetan. Gaia ez da originala; maiz landu da ideia bera album ilustratuetan: naturaren erritmoak eta denboraren joan-etorria, ziklikotasuna, saguak protagonista... Bistako aldaketak dira, harraren hautemate sensorial eta emozionalekin lotura dutenak. Hala ere, album hau antzeko beste askotatik bereizten duena, eta antzerako lan guztien artean hau hautatzeko motibo dena, albumak erakusten duen ikuspegi inklusiboarena da. Animalia antropomorfitatuak erabiltzeak identitate-markatzailer zuzen batzuk lausotzen ditu, eta askotan propio bilatutako aniztasuna antzematen da

(adina, generoa gaitasun fisikoak...).

Elkarbizitzako dinamikek erritmo eta egiteko modu anitzak erakusten dituzte; ez dute denek gauza bera egiten, ezta leku bera betetzen ere, eta aniztasun hori naturaltasunez, umorez, eta hierarkiarik gabe irudikatzen da. Animalia-antropomorfitatuen janzkera eta estetika propio markatua da (belarritakoak, zapiak, ezkatat eta ileak...). Testu azterketatik, ez dago gatazka dramatikorik: kontakizuna ziklikoa eta kontenplatiboa da, eta irakurlea gonbidatzen du aldaketak onartzera, hazkundea ulertzera eta eguneroko une xumeen balioa sumatzera. Testuak etorkizunean etorriko dena iragartzen dio haurrari modu labur eta neurrian, eta pisu narratibo handia uzten dio irudiari. Ohikoa da genero-erikiko zaintza hori eta zama begietan pilatzeko joera hori Mariana Ruizen lanetan; badi- tu euskaraz gomendagarriak diren beste album batzuk ere, hala nola, 'Amaren bidaia'. Manu López Gasenik oso itzulpen lan ona egin du, jolasa literaltasunaren gainetik jarrita. Horren adibide, izenburua: 'Una vuelta al año'tik 'Urte baten bueltan'era.

**URTE BATEN BUELTAN**  
MARIANA RUIZ JOHNSON  
Pamiela  
50 or  
16 euro



# Gizarte anitza

ARANTXA URRETABIZKAIA



**A**skotan harritzen nau zer nolako erraztasunaz orokortzen dugun talde batera pertsona bati bati buruz dugun iritzia. Eta bai, jakin badakit ezinbestekoa dela nolabaiteko orokortasuna mundua ulertzeko, baina iruditzen zait errazegi jotzen dugula orokortzera.

Nire soinketa kideen iritzia orokortuko banitu, esango nuke «adin bateko» emakumeok beldur diogula azken boladan trenari, istripuengatik, noski. Trenari bai, autoari ez. Orokortuko nuke gorputza zaintzea, zahartzarora saihes- tea dela gure kezka nagusia, goiz eta arratsalde, lanegun nahiz festa egune- tan. Korapiloa, ordea, orokorkeria horretan neure burua ikusten ez dudanean dator.

Nire adineko emakume adiskide ba-

tzuen gaztediarekiko iritzia orokortuko banitu, esan behar nuke gaurko gazteak kaskarinak direla, axolaga- beak, berekoiak eta beste hamaika lore, bost axola zaiela gizartea. Baina nik ikusten dudana ez da hori, nik gazte horiekin batera, beste gazte batzuk ikusten ditut, inguru hurbilean nahiz ertainean.

Urrutiko beste adibideak jartzearen, begira dezagun Estatu Batuetara. Jakin bagenekien Amerikako hegoaldetik bertaratutako asko Trumpen alde zegoela, etorkin berriek zerbait kenduko zirela. Izenburuek ez ziguten esan latindar batzuk, asko edo gehien- goa, Trumpen alde azaldu zenik. Ez, esan ziguten latindarrek orain presi- dente denari eman ziotela babesa.

Horixe gertatzen da sarritan emaku- meekin, zati bat osotasuntzat hartzen dela. Eta ez, barkatu, emakume guztiok ez gara berdinak, ezta adin berekoak ere. Zenbat kostatzen da esaldiari «bat- zuk» edo «zati bat» gehitzea? Zergatik norbanako bati gertatzen zaiona da guztioi gertatzen zaiguna? Zuri gerta- tzen zaizuna, zuk pentsatzen duzuna, zeurea da, ez guztiona.

Gustatu ala ez, anitza da gure gizar- tea, seguruenik gero eta anitzagoa edo, behintzat, inoiz baino anitzagoa.

## SALDUENAK

### FIKZIOA

- 1 **Barne zerbitzuak** Katixa Agirre. Elkar.
- 2 **Hilketa bat iragartzen da** Agatha Christie. Igela.
- 3 **Barazkijalea** Han Kang. Elkar.
- 4 **Enarak** Bernardo Atxaga. Pamiela.

### EZ FIKZIOA

- 1 **Harrizko bihotza** Karmele Jaio. Elkar.
- 2 **Esnatu ala hil** Iñaki Goikoetxea/Garikoitz Iurrebaso. Elkar.
- 3 **Denbora bizigarri baterako** Marina Garcés. Jakin.
- 4 **Rosa Parks** Rosa Parks/Jim Haskins. Katakarak.